



HERRITARREI ARRETA HOBEA ESKAINI, BEREN ESKUBIDEAK BABESTEKO

Arreta zuzeneko bulego berria Bilbon

Ararteko erakundeak Bilboko bulego berria zabaldu zuen irailean. Bizkaiko hiriburuko Albia eraikin enblematikoan kokatutako bulego honi esker, arreta hobea eskaini ahal izango diegu administrazio publikoren batekin arazoak dituzten herritarrei, instalazio egokiagoak baititu (hainbat bulego eta bi bilera-gela) eta guztiz irisgarria baita. Bulegoan arreta zuzena eskaintzeaz arduratzen den pertsonaren eginkizuna aholkulari talde batek indartuta dago. 1996an Bilboko eta Donostiako arreta zuzeneko bulegoak zabaldu zirenetik, lehendik

Gasteizen zegoenarekin batera, erakunde honek jada hiru lurralde historikoetako hiriburuetan ditu bulegoak. Orduz geroztik hartutako esperientziak erakusten du, gure esku-hartzea edo aholkularitza eskatzeko egunero bulego horietara joaten diren pertsonen bisitez gain, telefono bidezko kontsulta ugari ere egiten direla, erakundeko langileek erantzuten dituztenak. Kontsulta horiei erantzutea oso zeregin garrantzitsua da, pertsonen administrazio publiko desberdinekiko beren harremanetan dituzten eskubideen berri ematen baitaie.



(Bilboko bulegoa)



(Iñigo Lamarca Julia Hernández eta Ibon Aresorekin)

ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERA KOPURUTAN

• 2006. urtean 4.092 kontsulta izan dira, erakundearengana telefonoz zuzendu diren zein gure hiru bulegoetakoren batera bertaratu diren pertsonenak.

• Arartekoaren arreta zuzeneko hiru bulegoetan guztira 2.585 bisita jaso dira eta, horietatik, %24,95ek kexa aurkeztu dute.

• Hazten doa Internet bidez aurkezten diren erreklamazioen kopurua. Kexen %31,58 bide horrietatik aurkeztu dira.

• Arartekoan guztira 1.678 kexa aurkeztu dira eta, horietatik, %11,32 talderen bati dagozkio.

• Aurten ofiziozko 64 espediente hasi dira.

• Izapidetutako kexen %49,25 udalen aurkakoak izan dira, %33,89 Eusko Jaurlaritzaren jardueren aurkakoak eta %12,73 foru administrazioen aurkakoak.


• Galde-sortari erantzun diotenetatik %85,07k "oso balorazio ona edo nahikoa ona" egiten dute.

• Aztertu ondoren okerreko jardueraren bat agertu duten erreklamazioen %95,15en, ukitutako administrazioak kexa eragin duten jarduketak zuzendu ahal izan ditu.

ERREKLAMATZAILEEK ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUEKIN EGINDAKO BALORAZIOA

ARARTEKO ERAKUNDEAREN ESKU-HARTZEA ZENBAITERAINO IZAN DEN ERAGINKORRA

KONPONDU GABEKO JARDUERA OKERRA (gomendioa ez da onartu)
%4,85



DATU OROKORRAK

2006. urtean 4.092 kontsulta izan dira, erakundearengana telefonoz zuzendu diren zein arreta zuzeneko gure hiru bulegoetakoren batera bertaratu diren pertsonenak. Guztira 2.585 bisita jaso dira eta, horietatik, 645 kexa burutu dira, hau da, %26,46. Horrek arreta zuzeneko bulegoetan egiten den aurretiazko lanaren garrantzia agerian uzten du farrazoi batengatik edo besteagatik, Arartekoak ikertzerik izango ez duen erreklamazioak ez onartzean.

2006an guztira 1.678 kexa aurkeztu zaizkio Arartekoari. Kexen %11,32 talderen batek aurkeztu ditu.

Internet herritarrek erreklamazioak aurkezteko dituzten bideen artean finkatzen ari da. Kexen %31,58 bide horretatik aurkeztu dira.

Aurten, gainera, ofiziozko 64 espediente hasi dira. 2006. urtean bertan erabat izapidetu diren kexei dagokienez, aztertutako kexen %36,84n okerreko jarduerak atzeman dira. Ukitutako administrazioak kexa eragin zuten jarduketak zuzendu ahal izan ditu, okerreko

jardueraren bat agertu duten erreklamazioen %95,15en. Kasu gehienetan (%98,1) ez zen beharrezkoa izan gomendiorik egitea.


Kexak eurei lotutako gaikako arloen arabera kontuan hartzen baditugu, ikus dezakegu, aurreko ekitaldiaren aldean, 2006. urtean aldaketa batzuk egon direla arlo bakoitzean biltzen den erreklamazio kopuruari dagokionez. Adibidez, hirigintzaren alorreko kexa-kopurua murriztu egin da (%11,30), 2005eko datuekin alderatuta (%17,10), eta gehitu egin dira Herrizaingoaren alorrekoak, hots, %7,41etik %10,90era.

2006an erreklamazio gehienak toki administrazioaren aurkakoak izan dira, hau da, izapidetutako kexa guztien %49,25. Eusko Jaurlaritzaren aurkakoak %33,89 izan dira eta foru administrazioaren jardueren aurkakoak, berriz, %12,73. Ohartarazi behar dugu espedienteetan inplikaturako administrazioak ikertzeak ez duela irregularitasunik egin dutenik esan nahi, haren esku-hartzeren bat kexa-gai izan dela baizik.

Bizkaiko udalek kexa guztien %51,05 jaso dituzte, Gipuzkoakoek %25,02 eta Arabakoek %20,52.


Kexa aurkeztu duten pertsonen euren borondatez eta izena eman gabe betetzen duten inkestak adierazten du Arartekoaren esku-hartzea oso ona edo nahikoa dela (erantzun dutenen %85,07k), baita kexa ebatzi ez den edo beren aurka ebatzi den kasuetan ere.

ZUZENEAN BIDERATUTAKO KEXEN BANAKETA JARDUERA ALORREN ARABERA




- | | |
|------------------------------|--|
| 1 Herri Lanak eta Zerbitzuak | 9 Ogasuna |
| 2 Hirigintza eta Lurralde | 10 Ingurumena |
| 3 Herrizaingoa | 11 Justizia |
| 4 Gizarte Ekintza | 12 Kultura eta Elebitasuna |
| 5 Hezkuntza | 13 Animalien babesa |
| 6 Funtzio Publikoa | 14 Lana eta Gizarte Segurantza |
| 7 Etxebizitza | 15 Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa |
| 8 Osasuna | |

ZUZENEAN BIDERATUTAKO KEXEN BANAKETA ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ARABERA




ARARTEKOAK JASOTAKO KEXA KOPURUAREN BILAKAERA (1989-2006)




1 545ek kexa berdinaren multzoa osatzen dute.
 2 1.143ek kexa berdinaren 2 multzo osatzen dituzte.
 3 628 kexa berdinaren multzo bat osatzen dute.
 4 264k kexa berdinaren 2 multzo osatzen dituzte.

KEXAGILEAK ETA KEXAK AURKEZTEKO ERA


JASOTAKO KEXEN BANAKETA ERREKLAMATZAILAEN EZAUGARRIEN ARABERA



JASOTAKO KEXEN BANAKETA ERABILITAKO HIZKUNTZAREN ARABERA



JASOTAKO KEXEN BANAKETA AURKEZTEKO MODUAREN ARABERA



UDAKO IKASTAROAK

Ararteko erakundeak, EHUren udako ikastaroekin elkarlanean jardunez, “El Ararteko: un Ombudsman para el siglo XXI” izeneko jardunaldiak antolatu zituen Donostiako Miramar jauregian. 20 urte igaro dira Ararteko erakundea sortzen eta arautzen duen Legea onartu zenetik eta 15 baino gehiago erakundea abian jarri zenetik. Horregatik, pentsatu genuen une egokia zela XXI. mendearen hasieran herritarren eskubideak bermatzeko erakunde honi dagokion zereginaren inguruko hausnarketa egiteko. Xabier Markiegi eta Mertxe Agúndez ararteko ohiek, Enrique

Múgica Estatuko herri defendatzaileak, autonomia-erkidegoetako herri defendatzaileek eta gizartearen eremu desberdinetako ordezkariak honakoak aztertu zituzten: Arartekoa erakundearen iragana, oraina eta etorkizuna; defendatzaileen eginkizuna; zer eskatzen dion gizarteak; eta gizarte estatuaren transformazioaren ondorioz zein erronka berriri egin behar dien aurre. Izaskun Bilbo Eusko Legebiltzarreko presidentea eta Juan José Ibarretxe lehendakaria, hurrenez hurren, jardunaldien hasiera eta itxiera-ekitaldian izan ziren. Ikastaroetan parte hartu zuten zenbait gizarte taldeetako ordezkariak,

besteak beste, Hiesaren aurkako Arabako Hiritar Batzordea, Familien eta Gaixo Psikikoen Bizkaiko Elkarte (AVIFES) edo Médicos del Mundo elkarteetakoek, Arartekoaren irudiaren hurbiltasuna eta inpartzialtasuna goraiatu zituzten, nahiz eta, beren iritziz, tamalgarria den biztanle gehienentzat erakundearen eginkizuna ezezaguna izatea. Ararteko erakundearen inguruko hausnarketak egin zituzten, baita ere, Arantza Urretabizkaia idazleak, Bego Muruaga Mugimendu Feministako kideak eta Paul Bilbao Hizkuntz Eskubideen Behatoliko ordezkariak.



(Udako ikastarora joan zirenak)

“EL ARARTEKO, OMBUDSMAN DE EUSKADI, EN LOS ALBORES DEL SIGLO XXI”

“El Ararteko, Ombudsman de Euskadi, en los albores del siglo XXI” izeneko mintzaldian, Iñigo Lamarca adierazi zuen egitura instituzionalean ombudsmanaren zeregina “arrazoibideak ematea dela giza eskubideak guztiz babesteko eta, horretarako, horiek bermatzeko sistemen eraginkortasuna eta zehaztasuna bultzatu behar dela”. Ararteko erakundeak eta, oro har, Ombudsmanen erakundeek zeregin garrantzitsua dute zuzenbidea aldatzeko eginkizun horretan. “Antena sozial” gisa jardun behar du, arazo eta disfuncio sozialak detektatzeko, eta botere publikoei helarazi behar dizkie; bidezko asmo sozialak katalizatzeko balio behar du; arauen berrikuntzak bultzatu behar ditu; eta materialki bidezkoagoak diren egoerak sortzen laguntzen duten administrazio jardunak proposatu behar ditu.

Etorkizunari begira, eta kontuan hartuta garai honetan aldaketa sakonak gertatzen ari direla (globalizazioa, migrazio masiboak, ingurumenaren hondamena, balioen transmisioa, etab.), Arartekoak mende berriaren hasieran gogotik gauzatu behar diren lanak aipatu zituen: autokritikako jarrera iraunkorra; gizartearekiko harremanetan sakontzea,

norbere ekimenez aritu ahal izateko tresnak gehiago erabiltzea (ezohizko txostenak, gomendio orokorrak egitea, gizartea sentikor bihurtzea, etab.) eta erakundearen independentzia eta inpartzialtasuna indartzea, besteak beste. Horrez gain, gero eta garrantzitsuagoak diren eta ombudsmanen agendetan lehenetsuz barneratu behar izango diren jardun eremu batzuk ere azpimarratu zituen, esaterako, elebidunen eskubideak eta herritarren kezka berriak, besteak beste, ingurumenaren iraunkortasuna, herritarren segurtasuna edo intimitaterako eskubidea eta datuen babesa.



(Arartekoa, lehendakaria eta Estatuko herriaren defendatzaileak)



(Chillida-Lekura egindako ikustaldia)

BAKARRIK DAUDEN ADINGABE ATZERRITARRENTZAKO ZENTROAK

Adingabe atzerritarrak hartzeko zentroetan izan ohi diren zenbait gertakarik arrisku larria dakarkie adingabe horiei eta gizarte alarma sorrarazten dute. Horien aurrean, Arartekoak duela hilabete batzuk Eusko Legebiltzarrean aurkeztu zen adingabe atzerritarren egoerari buruzko ezohizko txostenean ere jaso ziren honako gogoetok egin nahi ditu berriro. Babesik gabe dauden adingabeak artatzea legezko eta elkartasunezko betebeharra da eta, hori betetzeko, administrazioen eta gizarte osoaren konpromisoa behar da. Gure ustez, administrazio desberdinen arteko lankidetzak behar-beharrezkoa da. Berriz ere gogorarazi nahi dugu zentro horiek bete beharreko baldintzak arautu behar direla. Haurrak eta Nerabeak Artatu eta Babesteko Legeak urtebeteko epea ezarri zuen araupetze

horretarako, baina oraindik egiteke dago. Oso kezkarria da gure artean arbuiozko gizarte erreakzioak izatea adingabe horiek modu egokian artatzeko beharrezkoak diren bitartekoak sortzearen aurrean. Ezin da ahaztu kasu askotan lotuta egoten direla arreta- eta hezkuntza-baldintzak eta gatazkak: zenbat eta okerragoak izan baldintzak, orduan eta aukera gehiago arazoak eta nahi ez diren egoerak sor daitezten. Garrantzitsua iruditzen zaigu, orobat, berriak hedabideetan tratatzean erantzukizuna eta zorrotasuna exijitzea. Izan ere, berri batzuek gizartean arbuiozko erreakzioak piztu ditzakete eta, horren ondorioz, adingabe horiek agian ez dituzte artatuko adingabearen interes gorenaren printzipioak exijitzen duen lehenetsunaz.



© EJ-GV, Mikel Arrazola

IRUNGO ETA HONDARRIBIKO ALARDEAK

Aurten ere, Irungo eta Hondarribiko alardeetan emakumeek berdintasunez parte hartzearen aldeko hainbat taldek kexak egin zizkieten erakunde honi, herri horietako alkateek uko egin baitzioten emakume eta gizonek baldintza berdinetan parte hartzeko alarde publikoak antolatzeari. Azaldutako gaiak legeriaren argitan aztertu eta gero

(batik bat Eusko Legebiltzarren 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna sustatzekoa), Arartekoak gomendio bana egin zien Irungo eta Hondarribiko udalei, hauxe eskatuz: beren gain har zezatela berdintasunean oinarritutako jai esparrua lortzeko ardura, udalek alarde publikoa iragarritz –horixe

iruditzen zaio komenigarriena Ararteko erakundeari– edo, bestela, emaitza hori bermatuko duten taldeei berdintasunezko alardea antolatzen lagunduz, formalki eta materialki, horretarako behar diren ekintza positiboko neurri guztiak hartuz.



© EJ-GV, Mikel Arrazola

PENSIODUNEN BIZI BALDINTZAK HOBETZEKO LAGUNTZAK

Persona batek Arartekora jo zuen gizarte plataforma baten izenean, Gipuzkoako Foru Aldundiak uko egin ziolako lanbide arteko gutxieneko soldata baino pensio baxuagoa duten Gizarte Segurantzako pentsiodunei (besteak beste, alargunei) laguntzak emateari. Halaber, interesik gabeko kredituak ere eskatu zituen etxebizitzaren irisgarritasuna hobetzeko eta adierazi zuen beharrezkoa zela adinekoei dagozkien eskubide, zerbitzu eta prestazioen inguruko informazioa. Bestalde, pentsiodunen baldintza ekonomikoak hobetzeko planteatu diren aukera ezberdinen berri eman dute, horien artean, Araban lanbide arteko gutxieneko soldatari beharrezko errenta duten pertsonentzat dauden laguntzak: bizi baldintzak eta kalitatea hobetzeko laguntza-prestazioak izenekoak. Alarguntzako pentsioak euskal administrazio publikoaren eskumena ez diren arren, egia da oso zenbateko txikiko pentsioak daudela eta, etxebizitzak irisgarri egiteko, inbertsio ekonomikoak egin behar direla. Horregatik, eta Arabako aurrekariak ere kontuan hartuta, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin harremanetan jarri ginen. Honek erantzun zigun berak ez

duela inolako eskumenik Gizarte Segurantzako pentsioen arloan. Hala ere, adierazi zuen 2007ko aurrekontuan traba arkitektonikoak ezabatzea bideratutako laguntza ekonomikoak barneratzea aurreikusita zuela. Euskal Autonomia Erkidegoak ere ez du eskumenik Gizarte Segurantzako pentsioen arloan, baina bai gizarte gaien arloan, eta, hala, informazioa

eskatu genion Eusko Jaurlaritzari. Beste informazio eskaera honen bidez galde egin genion ea inolako aurreikuspenik baduten lanbide arteko gutxieneko soldata baino pensio txikiagoak dituzten adinekoen bizi baldintzak hobetzeko, gizarte bazterkeriari aurre egiteko dispositiboetan egindakoez gain. Eusko Jaurlaritzak noiz erantzun zain gaude.



© EJ-GV, Mikel Arrazola

ONARRIZKO ERRENTAREN PRESTAZIOA INOLAKO ARRAZOIRIK GABE ETETEA

Sestaoko biztanle batek, Bizkaiko Foru Aldundiak onarrizko errenta ordaindu ez ziola ikusita, bere udaleko gizarte zerbitzuetara jo zuen. Bertan jakinarazi zioten horren arrazoa jarraipena egiteko txandara agertu ez izana zela. Ondorioz, onarrizko errentaren prestazioa eten zioten eta beste eskaera bat egiteko txanda eman zioten. Kexan aipatu zuen prestazioa inolako arrazoirik gabe eten zela, bere inguruabarrak berdinak baitziren; ez zen bizilekuz aldatu, baina, gizarte zerbitzuei bere garaian jakinarazi ziren bezala, komunitatean zenbait arazo egon ziren eta, horien ondorioz, gutunak ez zitzaizkion ondo heltzen. Udalak erantzunaren arabera, bi jakinarazpen saiakera egin ziren posta ziurtatu bidez, onarrizko gizarte zerbitzuetara joan zedin. Egoera horren aurrean, gizarte zerbitzuek prestazioa zuzentzeko erabaki zuten. Legearen arabera, zuzentzeko erabakiak onartzeko edo mantentzeko ezarritako eskakizunetarako bat jada ez betetzea dakarren egoeraren zantzuak antzematen direnean aplikatuko da. Kasu

honetan, ez zegoen arautegian etetea agintzeko jasotzen diren arrazoi bat bera ere: prestazioa onartzeko ezarritako eskakizunen bat aldi batez ez betetzea, gizarteratze hitzarmena negoziatzeari edo sinatzeari uko egitea, hitzez hala agindu ondoren bete beharreko jarduerak ez betetzea... Inguruabarrak ez ziren aldatu. Izan ere, eskaera berria aurkeztu ondoren, onarrizko errentaren prestazioa ordaintzeari ekin zioten berriz ere.

Bizkaiko Foru Aldundiari jakinarazi genion, gure iritziz, egindako prozedurak ez zituela lege aurreikuspenak betetzen, ezta pertsonaren eskubideak bermatzen ere. Hitzordura ez agertzea ez da prestazioa eteteke legezko arrazoi. Ondorioz, ez zegoen legezko arrazoirik zenbait hilabetez prestazioa ez jasotzeko; hilabete horietan, gainera, ezin izan zuen gizarte zerbitzuetara joan, beste eskaera bat egiteko hitzordurik ez zuelako. Foru Aldundiak gure gogoetak onartu zituen eta ordaintzeke zegoen zenbatekoa ordaindu zion kaltetuari.



© EJ-GV, Mikel Arrazola

GAIXO KRONIKOEI ZUZENDUTAKO LAGUNTZA

Gaixo kronikoen zenbait elkartek Arartekora jo zuten dituzten arazoak azaltzeko. Epidermiolosis Bullosa Gaitzaren Aurkako Elkartek jasotzen duten laguntza-estaldura aipatu zuen. Horrela, jakin ahal izan genuen, batetik, Osakidetza hainbat jarduni hasiera eman ziela euskal osasun sistemak doan eman dezan sendaketak egiteko beharrezko materiala; eta, bestetik, aztertzen ari zirela ea, formula magistralen bidez, behar dituzten produktu kosmetikoen osagai aktiboak eman ahal dakizkien (gaixotasun hori azaleko gaitza da eta gaur egun ez du tratamendurik). Era berean, Asociación BIZKAIA Elkarte de Espina Bífida e hidrocefalia ASEBI elkarteko ordezkariak beren kearen bidez adierazi zuten, gaixotasuna kronikotzat hartuz gero, errazagoa izango litzatekeela gaixoentzat prestazio desberdinak eta tratamendu eta errehabilitazio egokia lortzea. Horiek aipatu zituzten alderdietako batek botikak erosteko diru-ekarpenarekin zuen zerikusia, adierazitakoaren arabera, bizi osoan hartu beharko baitituzte neurri terapeutiko eraginkorragorik ezean. ASEBI elkartek ere gaixotasunaren izaera kronikoa eta finantzaketa lotu zituen. Gaixotasunaren izaera kronikoa aipatzen da autonomia-erkidegoren bateko arauan; horren arabera, eta funts propioen kontura, doan eskainiko dira gaixotasun horrek jotako pertsonak behar dituzten botikak. Beharrezkoa da aipatzea, beste patologia batzuekin gertatzen den bezala, tratamenduen finantzaketa ez dagoela gaixotasunaren izaera kronikoaren arabera. Horregatik, Osasun Sailari kearen berri eman genion, arantza bifidoak eta hidrocefaliak jotako gaixoen diru-ekarpena murrizterik ba ote zegoen azter zezan, Osasun Sistema Nazionaleko prestazioen finantzaketa orokorra alde batera utzita. Bestalde, fibromialgiak eta neke kronikoaren sindromeak jotako gaixoen, Hiru-Eskuak federazioaren bitartez, beren kezka azaldu zioten Ararteko erakundeari gaixotasun honi aurre egiteko neurrien inguruan. Zehazki, hori tratatzeko protokoloaren eta osasun arloko profesionalen zuzendutako prestakuntza-planaren inguruko jardun espezifikoa aipatu zituzten. Protokolo bera eta lehen mailako arretako profesionalen zuzendutako kasuan kasuko prestakuntza-plana onartzea gaixo horiei laguntza hobea eskaintzen lagunduko duten jardunak izango direla espero dugu.

IRISGARRITASUN UNIBERTSALA METROAN

Ezinduen elkarte batek azaldu zigun ez zetorrela bat Metro Bilbaok hartutako neurriarekin; alegia, zenbait geltokitako igogailuak 23:00etatik aurrera itxita egongo zirela. Beren iritziz, erabaki horrek garraioa erabiltzeko eta gauez ateratzeko beren aukerak murrizten zituen. Bere erantzunean, Metro Bilbaok aipatu zuen Santutxu eta Abando geltokietako igogailuak bakarrik geratzen zirela itxita 23:00etatik aurrera. Neurri hori hartzeko arrazoia izan zen metroko ikuskatzaileen jarduera ez zela bi igogailu horietaraino heltzen, igogailu horiek ikuskatzailea dagoen kontrako aldetik iristen zirelako plataforma esekira eta, beraz, ezin zitekeelako kontrolatu erabiltzaileek behar bezala erabiltzen zituztenik. Bere hitzetan, martxan dagoen igogailua ezin daiteke gauez zaintzarik gabe egon; eta ulertzen dugu Metro Bilbaoren beldurra. Baina gogorarazi behar izan genion beharrezko bitarteko material, tekniko eta pertsonalak jarri behar

direla erabiltzaile guztiei garraio zerbitzua egokia emateko. Bistakoa da mugikortasun arazoak dituzten pertsonen inolako mugapenik ez duten pertsonen zerbitzuak erabiltzeko dituzten baldintza berdinetan ahalbidetu behar zaiela garraio bideak erabiltzea. Horregatik, Arartekoak Metro Bilbaori eskatu zion irtenbidea aurki ziezaiola gauez Abando eta Santutxuko geltokietara sartzeko zegoen arazoari. Geltoki horiek Bilboko erdigunean daude eta, beraz, asko erabiltzen dira. Ondoren, Metro Bilbaok jakinarazi zigun bide-atezainak eta interfonoak jarri zituztela geltokietako igogailuen kanpoaldean. Horien bidez, mugikortasun urriko pertsonen aginte postuarekin harremanetan jar daitezke, igogailuari dei egiteko sakagailua erabilia. Dei hori aginte postuan jasotzen da eta igogailua teleagintearen bidez jartzen da martxan.



ESKOLA-GARRAIOA

Sopuertan bizi den familia batek gure esku-hartzea eskatu zuen herri horretako Obekuri auzoan geralekua jar zedin lortzeko, Zallako Mimetiz LHian eskolatutako beren seme-alabei eskaintzen zaien eskola-garraioaren zerbitzua hobetze aldera. Kexa honen inguruan egindako lehen gestioei esker zehaztu ahal izan genuen bideko eragozpenak (200 metroko alde handia dago; ez dago ikuspenik leku ilunetan eta zoruan lirdinga ere sor daiteke; etab.) ez zirela oztopo izan auzo hori eskola-garraioi beste

ibilbide batean barneratzeko. Dirudienez, ikasle horiei eskaini beharreko zerbitzuan, Hezkuntza Administrazioak garrantzi handiagoa eman zien antolaketa-arazoei, bideko arazoei baino. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari zenbait iradokizun helarazi genizkion eta honek erabaki zuen 2006-2007 ikasturterako berariazko ibilbidea ezarriko zuela eta, hala, familia horren eskariari erantzun zioela.



UDALETXEAREN FATXADAKO ERLOJUAREN KANPAI HOTSEK ERAGINDAKO ERAGOZPENAK

Gasteizko Andre Maria Zuriaren plazan bizi diren zenbait pertsonak erreklamazioa aurkeztu zuten Arartekoan, udaletxearen fatxadako erlojuaren kanpaiek eragiten zituen

zarata-eragozpenengatik. Adierazi zuten kanpaiek orduko puntuan, laurdenetan eta erditan jotzen zutela, egunean 24 orduz, eta bereziki gogaikarria zela horien hotsa gauez

entzutea. Udalera jo genuen, neurketa egin zedin zarata-maila ikusteko eta hori udal ordenantzan ezarritako mugen barruan ote zegoen egiaztatzeko. Eskabide horretan aipatu genuen kontu horri buruz hainbat espediente izapidetu zirela erakunde honetan. Horietan egiaztatu ahal izan genuenez, herri horietako udal teknikariek ez zuten zalantzarik izan neurriak hartu behar zirela esateko, batetik, soinu maila jaistea eta, bestetik, eta gauez sistema deskonektatzea. Udal txostenean jasotako erantzuna ikusita, ondorioztatu ahal izan genuen, udal agintarien ustez, udal erlojuaren kanpaiek eragindako hotsei ez zitzaizkiela Zaraten eta Bibrazioen Udal Ordenantzan ezarritako zarata-mugak aplikatzen, zarata hori tradizionaltzat hartzen zelako eta hots mota hori “oro har” onartu izan zutelako biztanleek. Berriz ere udalari zuzendu gintzaizkion eta adierazi genion beharrezkoa zela gauez kaltetuen atsedena eta lasaitasuna bermatuko duten neurriak hartzea. Horri dagokionez, gai honen inguruan Auzitegi Gorenaren eta Auzitegi Konstituzionalaren jurisprudentzia aipatu genuen. Gasteizko alkateak jakinarazi zigun bidezko argibideak eman zituela udaletxeko erlojuko kanpaiek gauez jo ez zezaten. Horren ildotik, adierazi zuen, horretarako, sistema elektromekanikoa diseinatu eta gauzatu behar zela. Eskatu zuten proiektua helarazi ziguten eta, horrekin batera, hori burutzeko gehienez hirurogeita bost egun beharko zituztela.




ETXEBIDE ZERBITZUKO ETXEBIZITZA-ESKATZAILEEN ERREGISTROAREN KUDEAKETA

Behin baino gehiagotan aipatu da Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Saileko Etxebide zerbitzuak Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroa (funtsean, bajak) kudeatzeko jarraitutako prozedura. Lehenik eta behin, ikusi dugu ebazpenak Ordezkaritzetako iragarki oholetan argitaratu eta horiek ediktu bidez jakinarazteak arazoak sortzen dituela. Bestalde, ohartu ginen babesgabetasun egoera are gehiago larriagotzen dela baja-ebazpena arauak aldatzearen ondorio bada eta horrek, orobat, aldatu egiten badu interesdunak Erregistroan inskribatzeko aukeratutako unean nagusi zen eta Etxebideko langileek aholku emateko oinarritzat hartu zuten aurreko statu quo juridikoa. Honi guztiari beste arazo bat gehitu behar zaio, alegia, sailak Erregistroan inskribatutako pertsonekin mailing formularen bidez dituen harremanek sortzen duten eragina, kasu askotan, pertsonaren egoera zehatza argitu ordez, nahaste handiagoa dakarren elementua barneratzen baitu. Azkenik, ohartu gara, sailak kasuan kasuko foru ogasunaren bidez hala egiaztatu ondoren, diru-sarrera nahikoak ez izateagatik (alegia, diru-sarreraren gutxieneko mailara ez heltzeagatik) automatikoki baja ematea kontraesan dagoela Dekretuko aurreikuspenarekin; honen arabera, etxebizitza eskuratu nahi dutenek zergak ordaintzearen menpe ez dauden eta, ondorioz, Ogasunarentzat ezezagunak diren errentetatik datozen diru-sarrerak izan ditzakete. Ondorioz, uste dugu bereziki garrantzitsua dela, interesdunaren egoera aldatuko den kasu guztietan, horren berri behar bezala formalizatutako banakako jakinarazpenen bidez ematea. Gainera, oso garrantzitsua iruditzen zaigu, oro har, argitasun handiagoz jokatzeko interesdunei zuzendutako informazioetan eta horiekiko harremanetan. Eusko Jaurlaritzarekin berriki izandako harremanetan, ikusi dugu saila prest dagoela kudeaketa-sisteman beharrezko aldaketak egiteko, aipatutako gabeziak arintze aldera.

IBAIONDOKO ETXEBIZITZA BIOKLIMATIKOEN GAINPREZIOA

Zenbait herritarrek Arartekoari keza aurkeztu zioten, Gasteizko Ibaiondo sektorean 24 etxebizitza bioklimatiko egiteko proiektuan aldaketak egin zirelako. Adierazi zioten kezkatuta zeudela, etxebizitzek zenbait aldaketa baitzituzten Gasteizko Udalak sustatzaileari esleitutako proiektuari eta ezarritako baldintzei dagokienez. Etxebizitza bioklimatiko gehieneko salmenta-prezioa tokiko korporazioko udalbatzak finkatu zuen partzelen besterentzea arautzen duen administrazio baldintza berezien orrian. Prezio hori, gainera, orria osatzen duten gainerako baldintzekin batera, partzelaren besterentzea esleitzeko udalak sustatzaileari ezarri zizkion betebeharrak bat da. Erreklamatzailerak salatu zuten etxebizitza bioklimatiko azken salmenta-prezioa 54.091 euro gehitu zela sustatzaileak sina zezaten aurkeztu zien salerosketa-agiri pribatuan. Erreklamatzailerak ez zuten sinatu, beren iritziz, etxebizitza bioklimatikoaren prezioa aldatu egin zelako eta enpresa sustatzaileak gehiegizko prezio hori inolako justifikaziorik gabe ordain zezatela eskatu zielako. Azkenik, eskritura publikoak sinatu eta etxebizitzak emateko egintzan,

sustatzaileak ordainketa egitea onartu zuten, eskriturak sinatzeari uko eginda, aurretik esleitura zituzten etxebizitzak eskuratzeko eskubideari uko egiten ziotela interpretatu ez zedin. Etxebizitzarako eta Hiri Berrikuntzarako Eragintegiak ekarritako dokumentazioaren arabera, sustatzaileak etxebizitzaren prezioa aldatu zuen Hirigintza zuzendariaren “informazio oharra” oinarri hartuta. Eskura genuen informazio guztia aztertuta, ondorioztatu ahal izan genuen Vitoria-Gasteizko Udalbatzak ezarri zuela etxebizitzaren legezko salmenta-prezioa eta, beraz, soil-soilik organo horri dagokiola etxebizitzaren salmenta-prezioa ezarri zuen akordioa berrikustea. Hortaz, Arartekoak gomendioa egin zion Gasteizko Udalarari eta, horren bidez, eskatu zion ofizioz aitortzea Hirigintza zuzendariari eman zuten “informazio oharren” deuseztatzea eta sustatzaileari eska ziezaiola etxebizitza bioklimatikoaren esleipendunei itzul ziezazkiela bidegabe jasozituen kopuruak, hala egin ezean, kalte-ordaina ordaindu beharko zela esleipendunei, udal jardun desegokiaren ondorioz.



ZENBAIT POLIZI AGENTEEK EMANDAKO TRATU DESEGOKIA

Indarra behar ez bezala erabiltzeagatik edo tratu desegokia emateagatik jaso ditugun kexetan erakunde honek hainbatetan aipatu dituen arazoak jarri dira agerian, besteak beste, indarraren erabilera kontrolatu beharra, epaileak hasieratik hutsegitetzat hartzen dituen jokabideez baliatuta atxiloketak egitea, agenteei desobeditzeagatik salaketa polizi jarduera zalantzan jartzen delako edo kritikatzan delako aurkeztu dela pentsatzea eta atxilotuari gorputz miaketa egiteko modua. Kontu horietako asko, adibidez, trafikoko gorabehera batean izandako esku-hartze

polizialaren aurkako kexa batean jaso dira. Gertakari horretan, ibilgailuaren gidaria atxilotu zuten, trafikoko segurtasunaren aurkako delitua egin zuelako, baita harekin zihoana ere, ustez agenteei desobeditzeagatik. Lehen absolbitu egin zuten bide judizialean eta bigarrenari, berriz, desobeditzeagatik kondenatu zuten. Kexa horretan adierazi zen, orobat, agenteek neurritz kanpoko indarrez jardun zutela eta agenteei desobeditzeagatik atxilotu zuten pertsonari guztiz biluzarazi eta gorputz miaketa egin ziotela atxilotuta egon zen denboran. Halako arazoak ikusi dira, baita

ere, desobeditzeagatik atxilotu zuten beste pertsona baten kexan. Honek ez zuen identifikatu nahi izan, hala egiteko eskatu zioten agenteekin euskaraz egin nahi izan baitzuen, baina hauek, antza, ez zeuden hala egiteko moduan. Erreklamatazileak adierazi zigun polizi bulegoetan erabat biluztera behar zutela. Jakin ahal izan genuenez, atxiloketa eragin zuten gertakariak hutsegitetzat hartu ziren bide judizialean.

TRAFIKOAREN ARLOKO ZEHAPEN PROZEDURAREN JAKINARAZPENA

Aurreko urteetan bezala, 2006an trafikoaren arloan izan diren kexek funtsean zehapen araubidean dute eragina eta, bereziki, zehapenak ezartzeko prozeduran. Kexa horietan lehendik ere aurkeztu ziren kontuak aipatu ziren, besteak beste, jakinarazpen pertsonalak egiteko modua eta prozeduren izapidetze estandarizatuak. Horregatik, "Trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko zehapen prozeduran postaz egiten diren jakinarazpenak: jakinarazpenak behar bezala saiaturik egin direla ulertzeko baldintzak, jakinarazpena jaso behar duena ez dagoenean" izeneko gomendio orokorraren edukia ekarri genuen gogora (2002ko ohiko txostena). Adibide gisa, aipa

dezakegu zenbait biztanlek Arartekora jo zutela eta zalantzan jarri zituztela Leioako (Bizkaia) Artazako tunelean baimendutako abiadura gainditzeagatik Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saila izapidetzen ari zen zehapen prozeduren zenbait alderdi. Nagusiki, desadostasunak prozedurari hasiera emateko egintza jakinarazteko administrazioak behar izan zuen denboraren ingurukoak izan ziren. Erreklamatazileen iritziz, horren ondorioz, beste zehapen prozedura batzuei eman zitzaizen hasiera haien aurka; adierazi digutenez, lehen prozedura hura lehenago jakinarazi izan balitz, beste prozedura horiek saihestu ahal izango ziratekeen. Nahiz eta kexa horietatik gehienetan Herrizaingo Sailak ez zituen

gainditu prozedurari hasiera emateko egintza jakinarazteko legez ezarritako epeak eta, hertsiki legearen ikuspegitik, bere jarduera zuzena izan zen, erakunde honek uste arlo honetako zehapenek modu eraginkorragoan beteko luketela dagokien eginkizun prebentibo eta pedagogikoa, interesdunak arin jakiten badu arauak urratu dituela eta zeintzuk izango diren bere ekintzaren ondorioak, horrela, bere portaera aldatzeko aukera izan dezan. Gure iritziz, helburu hori lortzeko, beharrezkoa da administrazioak al bait arinen esku hartzea eta, beraz, desiragarria litzateke prozedurazko izapideen jakinarazpena berehala gauzatzea.



ADIN TARTEAREN GARRANTZIA ADOPTATZEKO EGOKITASUNA ERABAKITZERAKOAN

Adoptatzeko aukeran pentsatzen dutenean, pertsona gehienek, beren adina gorabehera, urte gutxi dituzten haurren jartzen dute gogoia, adopziozko familiarekiko lotura afektiboak albait lasterren era ditzaten. 2005ean, hiru aldundiek hitzarmena egin zuten adopzioetarako egokitasun irizpideei buruz. Hitzarmen horrek oso positiboak ziren zenbait aldaketa egin zituen. Hala ere, belaunaldi arteko aldeari dagokionez, elkarrekin muga jartzearena izan zen. Horrela, adingabea adoptatu nahi duten pertsonak adopziogaiak baino 42 urte gehiago izango dituzte gehienez (bikotekide gazteenaren adina aintzat hartuta). Gure ustez, neurri horren bitartez, segurtasun juridikoa lortu nahi da, baina uste dugu hori ez dela bateraezina adin tartea adopzioa eskatu duen familia bakoitzaren gainerako inguruabar zehatzekin batera aztertzearekin. Gure ustez, zenbait egoeratan adopzio jakin bat egitearen abantailak tarte biologikoaren desabantailak gainditzen dituzte. Gure autonomia-erkidegoan, adoptatzeko egokitasuna haurrek eta nerabeak zaindu eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Euskal Legearen bidez arautzen da. Adinari dagokionez, honako baldintza hau ezartzen du: “adopzio-hartzailiek adopziogaien garapena egokia izateko ustez eragozpenik ez dakarren adina izango dute.” Dirudienez, bistakoa da legeak adopzioarako elementu kaltegarritzat hartzen duela gehiegizko adin tartea, baina gehieneko aldea baldintza absolutu gisa jartzea saihestu ere egin nahi izan du, aldundien arteko akordioak egiten ez duen bezala. Hortaz, Arartekoak hiru foru aldundiei gomendatzen die indarrak gabe utz dezatela adopzio-hartzailak, gehienez, adopziogaiak baino 42 urte gehiago izan behar dituela dioten eskakizuna, adoptatzeko egokitasuna lortzeko baldintza gisa. Gomendatzen dugu belaunaldi arteko tartea ez dadila izan muga kronologiko absolutua, baizik eta kasuan kasu azter dadila, kasu bakoitzean aintzat hartu beharreko ezaugarri pertsonal eta familiakoaren inguruko iritzi oso eta banakatuaren esparruan.

ERREKLAMAZIO EKONOMIKO- ADMINISTRATIBOAK EUSKAL HERRIKO UDAL ZERGEN EREMUAN

Auzietara jo aurretik administrazio egintzen aurka egiteko dagoen administrazio bide espezifikoa tradizio historiko luzea du zergen alorreko gure ordenamendu juridikoan. Erreklamazio ekonomiko-administratiboa ez da prozesu judiziala, baizik eta administrazio errekurso berezia. Aurkaratze bide honen alderdi onuragarri gisa, doakotasuna, espezializazioa, independentzia, izaera kuasi juridikzionala eta zergak ordaintzeko egintzaren izaera masiboa azpimarra ditzakegu. Baina udal eremuan, aurkaratze bide hau Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 1985eko Legeak ezabatu zuen. 2003an hutsune hori betetzen saiatu ziren, Toki Ogasunaren Modernizatze Neurrien Legea onartuta; horren arabera, beharrezkoa da 75.000 biztanletik gorako probintzi hiriburuetan eta

udalerrietan erreklamazio ekonomiko-administratiboaren ebazpenean espezializatutako organoak sortzea. Gaur egun, EA Eren lurralde eremuan Gasteiz, Barakaldo eta Getxo dira agindu hori betetzen ez dutenak. Hortaz, Arartekoak indarreko legeria bete dezatela gomendatzen die oraindik auzitegi ekonomiko administratibo propioa sortu ez duten eta kasuan kasuko foru auzitegi ekonomiko administratiboaren jurisdikzioari heldu ez dioten udalerririk. Gainera, bat gatz erreklamazio ekonomiko-administratiboa berriro udal eremura ekarri izanarekin, baina ohartzen gara beste urrats bat egin behar dela eta, hala, eskubide hori biztanle guztiei eskaini behar zaiela, horiek 75.000 biztanletik beherako edo goragoko udalerrietan bizi.

ONARRIZKO ERRENTAREN PRESTAZIOA ARAUTZEN DUEN APirilAREN 20ko 198/1999 DEKRETUAN AIPATZEN DEN BIZIKIDETZAKO UNITATE EKONOMIKO INDEPENDENTEA BERRIKUSTEKO BEHARRA

Gizarte bazterkeriaren aurkako Legearen arabera, bazterkeriaren aurkako tresnen artean, lankidetzaren hitzarmenak eta prestazio ekonomikoak (oinarrizko errenta eta gizarte behar larrietarako laguntzak) daude. Laguntza horiek eskuratzeko, elkarren artean erlazioz gabe dauden funtsezko bi kontzeptu daude: bizikidetzako unitate ekonomiko independentearena eta etxebizitza edo ostatu independentearena. Bi kontzeptuen egungo antolaketa zenbait premia-egoera estaldurak gabe utz ditzake. Izan ere, azken urteotan bizirauteko bitartekorik ez duten pertsonen kasuak ezagutu ditugu, prestazio ekonomiko horiek aipatu arazoiarengatik ukatu zitzaizkielako. Honek gizarte egoera ahulagoan dauden pertsonak babesik gabe geratzeko arriskuan daudela erakusten digu, eskakizun horiek bete ezin dituztelako. Gainera, lurralde historikoaren arabera, araua modu desberdinetara aplikatzen dela ikusi ahal izan dugu. Etxebizitza eskuratzeko egun dauden zailtasunak direla medio, kasu askotan, modu bakar eta etxebizitza alokairuan partekatzea edo etxebizitza batean gela bat alokatzea izaten da eta, batzuetan, jabea edo errentatzailea bertan bizitzen egon gabe. Azken alderdi hori errentarien kontrolpetik kanpo

geratzen da eta, hala ere, laguntzarik gabe utz ditzake. Horregatik, gure ustez, premia-egoera horiei erantzun ahal izateko, beharrezkoa da Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak bizikidetzako unitate ekonomiko independentea berrikustea, etxebizitza edo ostatu independentearenari dagokionez. Eta hori neurriak zergen alorrean nahiz Administrazioaren beste eremu batzuetan izan ditzakeen ondorioen kaltetan izan gabe. Era berean, gainerako administrazioekin batera aplikazio irizpide homogeneoak adostu behar dira, interpretazio desberdinak egotea saihesteko; era horretan, bizi den lekuaren arabera, erraztasun handiagoak edo txikiagoak egongo dira prestazio horiek eskuratzeko. Hona hemen egungo araudia berrikustea eskatzen duen beste premia-egoera batzuk: guraso bakarren familiak, oraindik ikasten ari diren eta beren senideekin bizi diren 18 urtetik gorako seme-alabak badituzte; eta, aldi baterako arazoa dela medio (banantzea, etxea utzaraztea...), berriz ere beren senideekin bizi behar duten pertsonak. Azken batean, uste dugu beharrezkoa dela neurri zuzentzaileak hartzea oinarrizko errentaren eta gizarte behar larrietarako laguntzen eskakizunak egungo testuingurura egokitzeko.

ETXERIK GABE ETA BAZTERKERIA LARRIAN DAUDEN PERTSONEN PREMIEI EMANDAKO ERANTZUNA

Txosten honetan, gure Erkidegoan etxerik gabeko eta bazterkeria-egoera larrian dauden pertsonen (hau da, baztertuen artean baztertuenen) oinarrizko premiei ematen zaizkien erantzunak aztertzen ahalegindu gara. Azken urteotan, aldaketa nabarmena izan da pertsona horien profilean. Prototipoa edo eredia dagoeneko ez da gizon bakartia, adin

ertainekoa, bere poltsak hartu eta batetik bestera ibiltzen zena, nahasmendu psikologikoaren ageriko seinaleak zituena. Gaur egun, oso ezaugarri desberdinak dituzte gaueko harrera-zentroetara, jantokietara edo eguneko zentroetara joaten diren pertsonak: horietatik asko etorkinak dira (EAEko baliabide horietan artatutako pertsonen artean,

%50 gutxi gorabehera etorkinak dira); gero eta gazteagoak dira (gaueko zentro batzuetan %60 inguru dira 30 urtetik beherakoak); %20ren bat emakumeak dira; zenbaitetan, familia osoa geratu da etxerik gabe; pertsona horietatik asko droga-konsumitzaile aktiboak dira; beste asko, berriz, burutik gaixo daude...



(Julia Hernández, Iñigo Lamarca eta Fermín Barceló)

Txostenak **gomendio** batzuk ematen ditu (30 gutzira) eta horiekin aipatutako arazoei aurre egin nahi zaie. Gomendio zehatzak dira eta zerbitzuen arauketa, plangintza edo koordinazioa hobetu nahi dituzte. Horrez gain, erakunde buruzagitza, erantzuteko gaitasuna handitu, eta premia eta profil berriak egokitu nahi dira, eta lan egiteko eretan hobekuntzak bultzatu...

Baina, proposamen zehatz horien azpian, proposamenok eusten, hari bat dago, proposamen horien guztien oinarri dena: onartezina da pobrezia eta bazterkeria larriko egoerarik egotea; hazkunde ekonomiko iraunkorreko testuinguru batean, gizarte-eredu solidarioa bultzatu behar da, gizarte-kohesioaren elementu garrantzitsua baita; eredu horrek gure ekonomietan eta gizarteetan etengabe gertatzen diren egiturazko aldaketei aurre egiten lagunduko digu, zatiketa handirik eta marjinaziorik gabe.

Txostenak arrisku bat antzeman du, hain zuzen ere, bazterkeriaren ondoriozko muturreko pobrezia egoerak ez ote diren areagotuko. Horrek, pentsarazi egin behar digu, batetik, zein gizarte-eredurantz goazen, eta, bestetik, ahalik eta pertsona gehien integratu behar dela normalizatutako gizarte eta lan sareetan. Kezkagarria da sistematik

kanpo geratzen diren pertsonen kopurua gehitu egin daitekeela pentsatzea. Hori gertatu ez dadin alderdi askoren ahalegina behar da, ez bakarrik gizarte-zerbitzua eta erabiltzaileena, baizik eta eragile ekonomikoena eta soziala eta erakundeena, horiek baitira gizartearen motoreak. Txosten honetan jasotako ahulezia egoerek gizarte-kohesioari lagunduko dioten elkartasun jarrerak eta jardunbideak sortu behar dituzte, horixe baita gai publikoen kudeaketaren helburu garrantzitsuenetakoa.

Bestalde, txostenak erakusten du gizarte-sarerik ezak pertsona horien gizarteratzea zailtzen duela. Horrek gizarteratze prozesuetan gizartearen inplikazio handiagoaren beharra dakar, gizarteratze hori arrakastatsua izan dadin. Horregatik, txostenak guztion arreta erakarri nahi du, guztiek (hots, administrazioek eta agente ekonomiko eta sozialek) garapen iraunkorraren aldeko konpromisoa hartu ezean, zein gizarte eredu sortuko den ohar gaitzean. Gero eta desberdintasun gehiagoko gizarte, baliabide ekonomiko, soziala eta lanekoetara gero eta pertsona gehiago ekarri ordez, errentagarriak ez direnak kanpoan uzten dituen, horren arrazoiak eta ondorioak aintzat hartu gabe.

Azterlan honetan **antzeman diren arazo nagusiak** zortzi gai nagusitan labur daitezke:

- Hutsuneak, batetik, legeriari dagokionez, eta, bestetik, eskumen banaketari dagokionez (nork egin behar dien arreta pertsona horiei).
- Baliabide desberdinen arteko koordinaziorik eza, jarduteko irizpide bateraturik eza, baliabide batetik bestera bideratzeko protokolorik eza, sarean egindako lanik eza...
- Behar batzuei erantzuteko zailtasuna, honako aldagai hauen arabera: baliabide horietan sartzeko baldintzak, edo artatu behar diren profil berriak.
- Administrazioen edo zerbitzuen inplikazio eskasa pertsona horiei eman beharreko erantzunean, batez ere, etxebizitza eta osasun arloetan.
- Lehendik lortutako eskarmentua behar bezala ez aprobetxatzea, programak eta parte-hartzea planifikatuta ez egotea.
- Gizarte sentsibilizazioko arazoak; horien ondorioz, kasu batzuetan, baliabide jakin batzuk baztertu ere egiten dira.
- Programen jarraitutasuna bermatzeko edo zerbitzuetako langileen lan baldintza egokiagoak lortzeko zailtasunak daude.
- Baliabide jakin batzuen saturazioa...

BIZIKIDETZA ETA GATAZKAK IKASTETXEETAN

Hezkuntzaren oinarrizko helburuetako bat da bizikide izaten ikatea indarkeriarik gabe, pertsona guztiei errespetua izanez, nolakoak diren alde batera utzita: oinarrizko helburua, beraz, hezkuntza-sistementzat, baina baita gizarte osoarentzat ere. Ez da bakarrik edukazio oneko edo txarreko kontua. Eskubide kontua da, pertsonen duintasunari eragiten diotelako. Kontu horren inguruan geroz eta handiagoa den eta "gizarte alarmatza" ere har litekeen gizarte kezka egotea. Gizarte kezkako edota alarmismoko testuinguru horretan, garrantzitsua zirudien ezagutza hobea ematea gure ikastetxeetako benetako egoeraren inguruan eta, horretan

oinarrirituz, zenbait gomendio egitea ikastetxeetako giroa eta bizikidetza hobetzeko. Ikastetxeeko giroa osotasunean aztertzeo asmoa du: berdinkideen arteko harremanak, bai; baina modu berean, baita irakasle eta ikasleen arteko harremanak, ikasle eta familien artekoak, etab. ere. Hau da, hezkuntza-komunitatearen esparruan garatzen den harreman multzo osoa, ikastetxeetako funtzionamendu ona asaldatzen duten jokabideak ere barne hartuta. Bizikidetzako gatazkei dagokienez, funtsean, sei mota aztertu ditu: disrupzioa; ikasleen erasoak irakasleei; irakasleen erasoak ikasleei; berdinkideen arteko tratu txarrak;

bandalismoa; eta absentismoa. Horietako bakoitzean, dituzten adierazpen desberdinak ikertu ditugu. Baina honakoak ere aztertu dira: giro orokorra, arauak, bizikidetza hobetzeko jardunak, balioak, etab. Ikastetxeetako indarkeriaren gainean gizarteak agertzen duen alarma, ziurrenik eginiko azterlanaren deigarriena izango da gure hezkuntza-komunitateko osagarri guztiak nahikoa pozik daudela beren ikastetxeetan sumatzen duten giroarekin. Familien %93,4 oso pozik daude semea edo alaba dagoen ikastetxean egotearekin



(Arartekoa Izaskun Bilbao Eusko Legebiltzarreko lehendakariarekin)

Ararteko erakundeak eskubideak bermatzeko duen betebeharretik aztertuz gero, ordea, alde negatiboak azpimarratu behar ditugu eta, bereziki, ondorio larriak izan ditzaketenak. **Kezka-elementu** ezberdinen artean, honakoak azpimarra ditzakegu:

- Irakasleen eta familien artean antzeman daitekeen dibortzioa. Hauen ustez beren seme-alabek ez dute ia arazorik ematen. Bestalde, irakasle gehienek (%54k) uste dute ikastetxeetako diziplina-arazoen edo indarkeriaren arrazoa familiak permisiboegiak izatea dela.

- Sektore batzuen parte-hartze eskasa ikastetxeetako bizikidetzaren erregulazioaren duten arauak egin, berrikusi eta aplikatzean.

- Zenbait jokabide “normalizat” hartzea; horrek zalantzan jartzen ditu errespetuzko bizikidetzarako ezinbestekoak diren hainbat balio.

- Ikastetxeetatik kanpoko agente batzuen jardura jakin batzuk izaten duten eragina, eta ez beti positiboa.

- Irakasle askorengan ezinegon maila altua antzeman daiteke, gainezka egiten dutela sentitzen dutelako.

- Zenbait jokabideren aurrean agerturiko erreakzioa ez da nahikoa, edo motelegia da, eta horrek zigorgabetasun sententzia sortzen laguntzen du.

- Tratu txarren biktima diren bakardadea eta mina. Badirudi orain arte ezagututako edo salatutako kasuak errealitatearen zati txiki bat besterik ez direla. Kontua da jazarpena pairatzen duen ikasle asko dagoela eta horietatik asko isiltasunean bizi direla.

Txosten honetan **28 gomendio** egin ditugu ikastetxeetako eta geletako bizikidetzaren hobetzeko. Hezkuntza-sistema osoari zuzendurikoak dira, bai arduradun gorenei bai eskola-komunitatearen parte ez diren baina, beren jardunen bidez, horrengan eragina duten beste agente sozial batzuei ere Horietako batzuetan egungo arau esparrua aldatzea edo osatzea proposatzen da edo jarduteko protokoloak berrikustea; beste batzuek ikastetxeetako antolakuntzan, beren lehenetsunetan, partaidetza-sistematan... dute eragina sei gomendio berezi ere egin ditugu jazarpen edo indarkeriazko egoeretan esku hartzeko moduaren inguruan, zehazki, horiek detektatzeko bideak hobetzera eta tratu txarren biktima direnei beharrezko babesa eta laguntza bermatzera bideratuta; hiruk beste agente sozial batzuen esku-hartzea dute hizpide; eta azken hirurek jarraipena eta ikerketa egiteko beharraz dihardute. Ikastetxe guztietako bizikidetzaren modu esanguratsuan hobetzea lortzeko zailtasun nagusietako bat sistemaren beraren konplexutasuna da, hamaika gela, hamaika irakasle... Gure gomendio horietako asko aplikatzea esku hartzea eta arduratsu ibiltzea eskatzen die

hainbat mailari: Hezkuntza Sailari eta haren zerbitzuei dudarik gabe, baina modu berean ikastetxe organoei eta baita beste agente sozial batzuei ere.

Labur bilduz, mutil, neska edo nerabe guztiek segurtasuna eskainiko dien eta gaitasunak ahalik eta gehien garatzea ahalbidetuko dien giroan heziak izateko eskubidea dute, adina, kondizioa, jatorria, ahalmena edo beste edozein ezaugarri pertsonal alde batera utzita. Familia guztiek dute beren haurrak ikastetxe batera bidaltzeko eskubidea, behar bezala babestu eta heziko dituzten bermearekin. Irakasle orok babesa eta garatzen duen lanarenganako errespetua jasotzeko eskubidea du, bere funtzioak eskatzen duen agintea izanez... Horregatik, ikastetxeak –ikastetxe orok– ezberdinen arteko bizikidetzaren praktikan jarri eta ikastea ahalbidetzen duen tokia izan behar du, edozein indarkeria-mota, bereizkeria edo irain alde batera utziz. Hortaz, mezu argia egi bihurtu behar dugu gure gizartearen eta eskolan: **zero tolerantzia harremanetako indarkeriarentzat.**



ARGITALPENAK

■ *Eusko Legebiltzarrarentzako Txostena*, aurreko urtean Ararteko erakundeak burututako jarduera biltzen duena.

■ *Etxerik gabe eta bazterkeria larrian dauden pertsonen premiei emandako erantzuna* ezohizko txostena.

■ *Bizikidetzeta eta gatazkak ikastetxeetan* ezohizko txostena.

■ *“Mugarik gabeko eskola. Ikasle etorkinen irakaskuntza Araban*, Jesús Manuel Septién emandako ikerketa-bekaren ondorio. Helburua izan da ikasle etorkinen integrazioari buruzko hainbat alderdi aztertzea, hala nola, ikastetxeetan zer egiten ari den, zer ari den aldatzen eta aldaketa horiek nola egiten ari diren. Argitalpen hau lehenengo arartekoa izan zen Juan San Martíni eskainita dagoen giza eskubideei buruzko liburu bildumako lehen a.





■ *Catalin de Rita de Barrenechea y otras voces de mujeres en el siglo XVIII*. Garai hartako emakumeen testuen aukeraketa bat da, nahiz eta, horien artean, bere lan bat argitaratua ikusi zuen emakume idazle bakarra nabarmentzen den: Rita de Barrenechea bilbotarra, emakume ikasia, bere familiaren ingurukoengatik Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearekin lotura estua zuena. Euskal literaturaren historiografiak berak aintzat hartu ez zuenez gero, *Catalin* argitara emanez, Ararteko erakundeak historiako bidegabekeria hori zuzendu nahi du eta, bidenabar, beste urrats bat egin Argien Mendean Euskal Herrian zegoen kultur ondarea berreskuratzeko.

■ *Kartzelaren ordezkoi aukerak Euskadin: komunitatearen onurarako lanak*. Arartekoak sustaturiko eta Alaia Olartek eginiko ikerketa lan hau komunitatearen onurarako lanei buruzkoa da, kartzelaren ordezkoi zigor gisa. Lehen zatian askatasuna mugatzen ez duen zigor horren konfigurazio legala aztertuko da, 1995eko Zigor Kodea aldatzen duen 15/2003 LOa indarrean jarri ondoren, eta arreta berezia emango zaie lege organiko horrek erantsitako aldarazpenei. Ondorenean, zigor hori Euskadin praktikoki aplikatzearen azterketa egingo da eta, azkenik, hainbat ondorio eta jarduteko ildo orokorrak proposatuko dira zigor mota hori Euskadin modu egokiagoan aplikatzearen alde egiteko.

■ *Oinarrizko eskubideak eta Europako Konstituzioa*. Beatriz Siciliak eginiko lan honek Europako integrazio prozesuaren egungo egoera aztertzen du. Prozesu hori joan den mendeko erdialdean hasi zen eta etengabeko bilakaera jasaten ari da, bereziki, Europako Konstituzioa berresteko faseari dagokionez.

■ *Derechos ciudadanos*, autonomia-erkidegoetako herritarren defendatzaileek urtero ateratzen duten aldizkaria. Zero ale honetan Estatuko inmigrazioa aztertu da, ikuspegi integratzaileak begiratuta, eta prozesu horren garapenean antzemango diren esparru desberdinak islatu dira.

■ Abenduaren 10ean Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna ospatzen denez, Ararteko erakundeak urtero kartela kaleratzen du gizarte egoera larriagoan dauden pertsonen beharrikiko sentikorrago bihurtzeko eta giza eskubideen babesean modu aktiboan parte hartzen duen gizartearen aurrera egin ahal izateko. Oraingo honetan, mezua eskola-jazarpenaren aurkako izan da. Era berean, egutegi elebidunak ere argitaratu dira eta horietan haurren oinarrizko 10 eskubide aipatzen dira. Material horiek Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan banatu dira.



JARDUNALDIAK ETA EKITALDIAK

■ Inigo Lamarca Arartekoak eta Javier Otaola Vitoria-Gasteizko Herriarren Defendatzaileak edo Sindikoak lankidetzahitzarmena sinatu dute. Horren bidez, bi erakundeek hitzeman dute harreman estua izango dutela herriarren eskubideak modu eraginkorrean babesten direla ziurtatzeko. Harreman horretan honako printzipio orokor hauek izango dira nagusi: lankidetzak, koordinazioa, baliabide publikoen erabilera eraginkorra eta leialtasun instituzionala.



(Gasteizko sindiko edo herriaren defendatzailearekin)

■ Ararteko erakundearen ordezkari talde batek Herri Defendatzaileen Koordinaziorako XXI. Jardunaldietan parte hartu zuen Leónen. Hirigintza-jarduerak gizartean eta ingurumenean duen eragina izan zuten gai nagusi. Etxebizitza garesti dago oso, gizarte talde askok nekez eskura dezakete etxebizitza duinik eta, gaur egungo hirigintza-ereduen ondorioz, ingurumenarekin zerikusia duten balioak hondatzen ari dira. Egoera horri aurre egiteko, herri defendatzaileen ustez, herri agintariak Konstituzioko balio jakin batzuk sustatu eta bermatu behar dituzte, hala nola, etxebizitza duina eskuratzeko aukera edo ingurumenaren babesa. Herri defendatzaileen iritziz administrazio publikoak bultzatu behar dituzten jarduera-ardatzen artean, azpimarratzekoa da hirigintzaren legitimotasun demokratikoa indartzea, sustatzaileen hirigintzatik herriarren hirigintzara pasatuz urbanismo de la ciudadanía.



(Lamarca Enrique Migicarekin)

■ Inigo Lamarca Ombudsmanen Iberoamerikako Federazioaren (OIF) XI. Biltzarrean izan zen, baita “Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak eta giza eskubideen defendatzaileak” izenburupean Buenos Airesen (Argentina) egin den Nazioarteko Mintegian ere. OIFen helburu nagusia foro bat sortzea da, elkarrekin lan egiteko, batzuk besteari bere esperientzien berri emateko eta Ombudsmanaren irudia sustatu, ezagutarazi eta indartzeko; orobat, herrialde iberoamerikarretan giza eskubideen kultura zabaldu ere egin nahi du.

■ Arartekoa, euskal erakundeetako beste ordezkari batzuekin batera, Wangari Muta Maathai Bakearen Nobel saridunarekin bildu zen, Maathai irakaslea Euskadin zela aprobeztatuz. Bilera horretan, Maathai irakasleak hitzaldia eskaini zuen, ingurumena giza eskubidea eta bakerako funtsezko euskarria dela adieraziz. Wangari Maathaik 2004an jaso zuen Bakearen Nobel saria, garapen iraunkorraren, demokraziaren eta bakearen alde egindako lanagatik. Izan ere, hiru hamarkadatan Afrikako emakumeak 30 bat milioi zuhaitz landatzera eraman ditu.

■ Juan San Martín lehen Arartekoa izan zena Eibarko seme kutun izendatu zuten, hil ostean, bere ibilbideagatik. Bere senideak eta hainbat erakundeetako eta kultur arloko ordezkariak izan ziren omenaldi ekitaldian. Bertan, Inigo Lamarca azpimarratu zuen Juan San Martínek lan handia egin zuela Ararteko erakundearen buru gisa, “humanismoak, independentziak eta zintzotasunak bultzatuta”.

■ Julia Hernández Arartekoaren ondokoak Londresen ospatu zuen EBeko estatu kideetako Herriarren Eskualde Defendatzaileen V. Mintegian parte hartu zuen. Mintegiaren gai nagusia honakoa izan zen: “Administrazio egokia eta herriarren eskubideen defentsa sustatzeko elkarlanean”.



(Wangari Muta Maathai bakearen Nobel sariduna)

■ Gazteen Justiziarako Nazioarteko Behatokiak Nazioarteko II. Biltzarra antolatu zuen, “Gazteen justizia Europar: integrazioarako esparrua”. Arartekoaren ondokoak Bruselan egindako topaketa honetan izan zen, baita Andaluziako Juntak eta Meridianos elkarteak Sevillan antolatu zuten “Agingabeentzako sistema judicialak betetzeko programa” izeneko Europako I. Biltzarrean ere.

■ Julia Hernández asistió en junio en Viena a la reunión de la Región Europea del IOI, organizada por el International Ombudsman Institute.



(Julia Hernández herriaren defendatzaile batzuekin)

HERRI DEFENDATZAILEEN USTEZ, BEHARREZKOA DA ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ARTEAN AKORDIOAK EGITEA BAKARRIK DAUDEN ADINGABEEI DAGOKIENEZ

Koordinaziorako XXI. Jardunaldietan parte hartzeko Leónen bildu ziren herri defendatzaileek adierazpena aurkeztu zuten administrazioek bakarrik dauden adingabeekiko duten erantzukizunari buruz. Gizarte politikak diseinatu eta garatzerakoan inmigrazioaren fenomenoak eragin ditzakeen erronkak alde batera utzita, herriaren defentsarako Estatuko erakundeak bat gatoz honetan: beharrezkoa da Estatuko administrazio publikoaren artean akordioak lortzea adingabeen eskubideen ikuspuntutik hain garrantzitsua den gai batean. Beren iritziz, administrazio publikoaren derrigorrezko betebeharra da adingabearen interesen alde egitea, horixe ezartzen baitu Haurraren Eskubideen Konbentzioak. Horren arabera, Espainian dagoen beste edozein adingabek dituen eskubide berdinak aplikatuko zaizkie adingabe horiei ere. Halaber,

defendatzaileek gogorarazi dute Espainiako legeriak argiro ezartzen duela adingabeak, beste ezer baino lehen, adingabeak direla, eta printzipio horrek nagusitu behar duela atzerritar izatearen aurrean. Gainera, herri defendatzaileek haien eskubideen betetze maila sendotzera zuzenduriko zenbait jarduera gomendatu dituzte. Jarduteko printzipioen artean, honako hauek azpimarratu behar dira: autonomia-erkidegoetako administrazio publiko ahaldunek adingabearen tutoretza hartu behar dute beren gain berehala; adingabeari dokumentuak ematen eta egoitza izapidetzen hasi behar dute; adingabeak ez dira aberriaratu behar jatorriko famili giroan integratu ahal izango dela berme nahikoak egon ezean, eta beharrezko baliabideak garatu behar dira garapen osoa ahalbidetzeko eta adingabeari harrerako gizarte txertatzen laguntzeko.

IKERKETA BEKAK

■ Ikerketa aplikatuko beka eman zaio Inmaculada Múgica Floresi, EAEn lesbianak ikusezinak izatearen inguruko azterlana egiteko. Zehazki, elkarrizketen bidez, Euskadin lesbianek nolako bizitza afektiboa eta sexuala duten aztertuko du, zein heinean ikus daitekeen beren orientazio sexuala eta zein neurritan duen horrek eragina lesbianismoa gizarte normalizatzekeo prozesuan.

■ Halaber, 2006an Arartekoak ikerketabeka eman dio José Zarauz Richterri. Lan hau udal erroldari buruzkoa izango da: izaera, lege erregimenak, ondorioak, etab., baita kasu batzuetan atzerritarrek bertan inskribatzeko dituzten zailtasunak ere.



(Herriaren defendatzaileak)

ESKOLA UMEEN BISITAK

Ohi denez, aurten ere, Ararteko erakundeak Gasteizko Udalaren Hezkuntza Sailak antolatzen duen *Gasteizko albistegia* izeneko jarduerari lagundu dio. Arabako hiriburuko ikastetxe ezberdinetako ikasleek aldian-aldian bisita egiten digute eta, egun batez kazetari bihurtuta, erakundearen lanari lotutako datuak eta informazioak biltzen dituzte, ondoren irrati edo telebista saioa edo egunkaria egiteko.



(Gasteizko programako zenbait parte-hartzaile)

IDAZLAN LEHIAKETA

Iñigo Lamarca Arartekoak eta Julia Hernández Arartekoaren ondokoak “*Gure eskubideei*” buruzko eskola-lanen II. lehiaketako sariak banatu zituzten, erakundeak Gasteizen duen egoitzan antolatutako ekitaldian. Lehiaketa honen berri Euskal Autonomia Erkidegoko

ikastetxe guztiei eman zitzaion. Hauek era guztietako eskola-lanak aurkeztu zituzten: gutunak, idazlanak, komikiak, egunerokoak, ipuinak, etab. Ekitaldi horretan izan ziren, baita ere, Eva Silván Save the Children elkartearen ordezkaria eta Teresa Infante

UNICEFek EAEn duen ordezkariaren presidentea, aurkeztutako lanak baloratzeaz arduratu zen batzordeko kideekin batera.



(Idazlan lehiaketako sariaren banaketa)